BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4952

EBAZPENA, 2013ko urriaren 16koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko irailaren 25eko Aginduan azaltzen den kreditu-kopurua handitzen duena. Agindu horren bidez, 2013. urtean kultura-arloetako jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egin zen.

2013ko urriaren 7an argitaratu da EHAAn (191. zk) 2013ko irailaren 25eko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013. urtean kultura-arloetako jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Kontuan izanda aurkeztu den eskabide-kopurua, dirulaguntzen onuradun gerta daitezkeenek garatuko dituzten egitasmoen garrantzia eta, ondorioz, eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako Sailburuordetzak, Agindu honen lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusten denari jarraikiz, beharrezkotzat jo du aipatutako Aginduko 2.2 artikuluan azaltzen den kreditu-kopurua moldatzea. Egingo den moldaketa Aginduaren xedera zuzendutako kreditu-kopurua handitzea izango da. Izan ere, hori eginez, egitasmoen bideragarritasuna bermatu ahal izango da. Badago horretarako Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan behar den besteko aurrekontu-zuzkidura.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2013ko irailaren 25eko Aginduaren 2.2 artikuluan azaltzen den kreditu-kopurua handitzea, Agindu bereko lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren babesean. Honako era honetan geratuko da idatzita:

«2.– Agindu honen babesean ematen diren diru-laguntzak finantzatzera bideratutako kredituaren zenbatekoa, guztira, bostehun mila (500.000) eurokoa izango da».

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 16a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.